

## Udiarragako Gure Amaren ermita

Udiarragako ermita ondare historikotzat hartutako monumentua da. Estilo barrokoko eraikin elijiosoa da, kanpai-horma (triangulo itxurako kanpandorra) garrantzitsua duela .

Ugao-Miraballeseko hirigunean dago, baina 200 urte baino zertxobait gehaigo bakarrik darama hemen, 1778. urtetik, hain zuzen ere. 1775. urtera arte Udiarraga mendian beste ermita bat egon zen 1556. urtetik dokumentatuta dagoena.

Azpimarratzekoa da barrokoko erretaula, Juan Alonso de Biadero eta Pedro Laynez kantabriar maisuek eginiko egur polikromatutako arkitektura lan ikaragarria. Erretauloak eraikinak baino ehun urte gehiago ditu, 1680 urtean jarri baitzuten ermita zaharrean.

Argibide gehiago nahi izatekotan, Ugao-Miraballeseko Historia Ezagutze-ko Zentroan aurki dezakezue.

## Ermita de Nuestra Señora de Udiarraga

La Ermita de Udiarraga es un monumento declarado Patrimonio Histórico. Es un edificio religioso de estilo barroco con importante espadafía (campanario de forma triangular).

Está situada en el casco urbano de Ugao-Miraballes, pero esta solo lleva poco más de 200 años, concretamente desde el año 1778. Hasta 1775 existió en el monte de Udiarraga una ermita anterior documentada desde 1556.

Destaca el retablo barroco, magnífica obra de arquitectura en madera policromada, realizado por los maestros cántabros Juan Alonso de Biadero y Pedro Laynez. El conjunto del retablo tiene cien años más que el edificio pues se instaló en el año 1680 en la antigua ermita.

Más información disponible en el Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes.

## Zeberioganeko Andra Mariren basiliza-santutegia: Zeberio

Erljio-gune honek daukan interesa batez ere etnografikoa da, ez artistikoa.

**Eraikina:**

Eraikinaren oin-planoa lau tartetan banatuta dagoen errektangelua da. Tarte guztiak berdinak dira bigarrena izan ezik, hau laukia eta zabalagoa baita.

Zeberioganeko atal interesgarriena korua dugu. Deigarria da koru mudejar honetako arotzeria lan guztia, oraindik jatorrizko polikromia ere gordezten baitu.

**Altzariak:**

Kultuko irudirik garrantzitsuenetako batzuk —titularra den Andra Marirena besteak beste— duela hamarkada batzuk lapurtu egin zituzten. Hiru erretaula Rococo ditu (1753koak), eta nabarmentzekoak dira bai San Migel errenazentista baten iruditxo xarmanta bai inskripziodun buztineko ontzi-joko batzuk.

## Ermita-santuario de Nuestra Señora de Zeberiogana: Zeberio

Centro religioso de más interés etnográfico que artístico.

**Edificio:**

Planta rectangular distribuida en cuatro tramos, todos iguales salvo el segundo, que es cuadrado y más amplio.

Lo más destacable de esta ermita es un coro mudejar, en el que llama la atención toda la labor de carpintería que conserva su policromía original.

**Mobiliario:**

Algunas de las imágenes de culto más relevantes —entre ellas, su Andra Mari titular— fueron robadas hace unas décadas. Tiene tres retablos rococós (1753) y destaca la figurilla de San Miguel, renacentista, y unos juegos de vasijas de barro con inscripciones.

## Olabarrietako Santo Tomas eliza: Zeberio

**Eraikina:**

Harri-hormaz eraikitako masa hau bakar-bakarrik dago. Hiru tartetan banatuko errektangelua dugu eta elementu osagarriarik dira lau kaperatxoak, euren artean binaka berdinak direnak.

Zeberioko eliza XV. mendeko amaierako elementu gotikoa da (hala ere, bere sorrera-data 1190 urtean izan zen). Nabea ez da agiritan jasota ageri baina bai, ostera, koru errenazentista, 1576an egina. Baita gainontzeko alderdi nagusiak ere: sakristia 1746an, dorrea 1765ean eta ataria 1628an.

**Altzariak:**

Korua interes handiko altzaria da, ebanisteria-lan bikaina, bi pisukoa, bankua eta hiru kale dituena. Erлиеak eta tailak azken Errenazimenduaren barruan koka daitezke.

Sakristian parrokiako museo baten antzekoa dago, hain zuzen ere Bizkaian horrelako museoen artean aurki daitekeen onena eta hornituena. Bertan dauden elementu ia guztiak kalitate handiko lan errenazentista eta barrokoak dira.



Olabarrietako Santo Tomas eliza Iglesia Santo Tomás de Olabarieta

## Iglesia de Santo Tomás de Olabarieta: Zeberio

**Edificio:**

Está construida en mampostería, con planta rectangular distribuida en tres tramos. Elementos complementarios a este buque son cuatro capillitas, dos a dos iguales entre sí.

La iglesia de Zeberio es un elemento gótico de finales del siglo XV (aunque su fundación se remonta a 1190). La nave no está documentada, pero sí el coro, que es renacentista (1576). Y también las demás partes principales: la sacristía en 1746, la torre en 1765, y el pórtico en 1628.

**Mobiliario:**

Existe un retablo de mucho interés, buena obra de ebanistería de dos pisos, más banco y tres calles. Los relieves y tallas se inscriben dentro del último Renacimiento.

En la sacristía está constituido una especie de museo parroquial, el mejor y más poblado de los de Bizkaia, casi todo renacentista y barroco de calidad.

## Olarteko San Bartolome eliza: Orozko

**Eraikina:**

Landa-tenplu xumea da. Isolatuta dagoen arren, erabiltzen duten auzokideak bizi diren auzunetik —Ibarratik— hurbil kokatzen da. Harri-hormaz eraikita dago, eta nabeak errektangelu erako oin-planoa osatzen duen arren burualdean lauki eskuagoa dauka. Garai batean marrazki batzuk ere bazeuden margotuta, elizak jasan duen eraberritze modernoan galdu direnak.

XIII. mendeko eraikin honek, Erromaniko berantiarrekoa edo inertzia lana ematen du. Hala ere, jatorrizkotik alboko atea besterik ez da geratzen.

**Altzariak:**

Interes handiko bi elementuk oraindik bertan diraute. Bata Errukiaren erliebea da, egurrez egina. Bestea, Olarten gehien nabarmentzen dena, Artzainen adorazioa irudikatzen duen triptiko margotua da. Bizkaiko margo errenazentista guztietatik onetakoa dugu berau.



Olarteko San Bartolome eliza Iglesia de San Bartolomé de Olarte

## Iglesia de San Bartolomé Olarte: Orozko

**Edificio:**

Se trata de un pequeño templo rural. Aislado, pero cercano al barrio al que sirve —Ibarra—, está trabajado en mampuesto, y en planta se resuelve en una nave rectangular. Había dibujos pintados que se han perdido en la restauración moderna que la iglesia ha sufrido.

El edificio parece obra del románico tardío o de inercia, del siglo XIII, del que tan solo queda la portada lateral.

**Mobiliario:**

Hay dos elementos de apreciable interés: uno de ellos es el relieve de la Piedad, en madera. Pero lo que más destaca en Olarte es el tríptico pintado de la Adoración de los Pastores, una de las mejores de Bizkaia.

## Arangurengo dorrea: Orozko

Arangurengo dorrea Orozkoko gune nagusia den Zubiaur, eta Ibarra auzoa zein bailarako beste leku batzuk lotzen dituen bidearen ertzean dago.

1500 urtea baino zertxobait geroago eraikiko zen Arangurengo dorrea, baina gaur egun bertan ikus dezakegun etxearen eraikina ez zen gauzatuko XVI. mendearen lehenengo urteetaraino. Mundu gotikoaren eta Berpizkundearen artean bizi izan zireneko garai hartaraino. XVII. mendean Rotaetxetarren eskuetara pasatu zen, eta pentsatzekoa da azken hauek eraberritze handiak burutu zituztela, gaur egun daukan ibxura eman arte.

Etxea oin-plano lauki baten gainean dago eratuta. Izkinetan zein baoen inguruetan silarriz sendotutako harri-hormekin egin ziren hormak. Bao horiek fatxadetan banatuta daude baina ordena handi barik, artean arras gotikoa zen eraikin bati zegokion moduan.

Baina, horrekin batera, Berpizkundearen eragina ere nabaria da Arangunenen, interes handia jarri baitzuten fatxada nagusia nabarmentzeko.



Arangureneko dorrea Torre de Aranguren

## Torre de Aranguren: Orozko

La torre de Aranguren se levanta al borde del camino que une Zubiaur, el núcleo principal de Orozko, con el barrio de Ibarra y otros lugares del valle.

La torre de Aranguren fue construida poco después del año 1500, pero la construcción de la casa actual debió esperar hasta los primeros años del siglo XVI, a caballo entre el mundo gótico y el del Renacimiento. Ya en el XVII pasó a manos de los Rotaetxe, quienes debieron hacer importantes reformas y le dieron su aspecto actual.

La casa se asienta sobre una planta cuadrada, y sus muros se aparejan en mampostería reforzada. Estos se distribuyen por las fachadas sin mucho orden como corresponde a un edificio aún esencialmente gótico.

Pero al mismo tiempo en Aranguren empieza a dejarse notar la influencia del Renacimiento, apreciable en el interés que se puso en destacar la fachada principal.

## Murutetako San Pedro eliza: Orozko

Duela gutxi izan da berritua Orozkoko eliza txiki hau, eta berritze lan horiek lehenago pentsaezina zen balio erakargarria eman diote. Horrela, karearen azpiko margoak aurkitzearekin mendeetan eta mendeetan bertara otoiitz egitera abiatzen zirenen begien aurrean ostonduta egon den elementu nabarmen bat berreskuratu ahal izan da.

**Eraikina:**

Duela gutxi izan da berritua Orozkoko eliza txiki hau, eta berritze lan horiek lehenago pentsaezina zen balio erakargarria eman diote. Horrela, karearen azpiko margoak aurkitzearekin mendeetan eta mendeetan bertara otoiitz egitera abiatzen zirenen begien aurrean ostonduta egon den elementu nabarmen bat berreskuratu ahal izan da.

**Eraikina:**

Oin-planoa gutxi gorabehera laukiak diren bi tartek osatutako errektangelua da. Berau, Berpizkundeko arkitektureko bitxi txikia dugu, agiritan lehenengoz 1545ean agertzen zaiguna.

**Altzariak:**

Lau erretaula dauzka. Erretaula nagusia neoklasiko zorrotza da. Alboetan dauden erretaulak barrokoak dira (1710ekoak). Kapera modernoago batean beste erretaula bat dago, XVII. mendearen erdialdekoa.

Ez ditugu, ostera, beste bi bitxi ahaztu behar: alde batetik, XIV. mendeko San Pedoren irudi gotikoa. Beste aldetik, San Pedoren ukapenen ohiala legoke, berritu berria bera, barrokoa eta XVII mendekokoa.



Muruetako San Pedro eliza Iglesia de San Pedro de Murueta

## Iglesia de San Pedro de Murueta: Orozko

La restauración reciente, de esta pequeña iglesia de Orozko ha significado la revalorización de un elemento de insospechado atractivo. Así, el descubrimiento de las pinturas bajo el encalado ha supuesto la recuperación de una obra de arte, oculta durante siglos a los ojos de los fieles.

**Edificio:**

Su planta es un rectángulo de dos tramos aproximadamente cuadrados. Constituye en sí una pequeña joya de la arquitectura del Renacimiento. Está documentada en 1545.

**Mobiliario:**

Cuenta la iglesia con cuatro retablos. El mayor es una severa propuesta neoclásica. Los retablos colaterales son barrocos (1710). En una capilla más moderna hay otro retablo de mediados del siglo XVII.

Pero no hay que olvidar otras dos joyas: una talla de San Pedro gótica del siglo XIV y el gran lienzo de la Navegación de San Pedro, restaurado, es barroco del siglo XVII.

## Anunzibaiko zubia: Orozko

Anunzibai, Orozkoko bailararen sarreran dago. Izen bereko familiak Altube ibaiko urak aprobetxatzeko burdinola jarri zuen toki berean. XVIII. gizaldian zubia eraiki zuten.

Zubia ondare elementu garrantzizkoa da, baina batez ere azpiegituren arkitekturari dagokionez, burdinola, ordea, suntsituta dago. Zubiari dagokionez, betebehar gisa Altubetik igarota, kostaldera zihoan errepidea burdinolarekin lotzea zeukan, itsasoko bidean Ugao-Miraballes ere zeharkatuz.



Anunzibaiko zubia Puente de Anunzibai

## Puente de Anunzibai: Orozko

Anunzibai se encuentra a la entrada del valle de Orozko, donde la familia del mismo nombre tenía una ferrería que aprovechaba las aguas del río Altube. En el siglo XVIII, se edificó un puente.

Este puente existente, constituye un importante elemento patrimonial dentro de la arquitectura de infraestructuras, pero de la ferrería quedan sólo las ruinas. El puente pretende comunicar la ferrería con el camino Real a la costa por el paso de Altube, pasando también por Ugao-Miraballes.



Udiarragako Gure Amaren Santutegia Santuario de Nuestra Señora de Udiarraga

Fernando Barriomé

Fernando Barriomé



Zeberioganeko Gure Amaren bazeliza-santutegia Ermita-santuario de Nuestra Señora de Zeberiogane

Fernando Barriomé

Fernando Barriomé

Fernando Barriomé

Fernando Barriomé



# UGAO-MIRABALLES / ZEBERIO / OROZKO / UGAO-MIRABALLES KOTXEZ IBILBIDEA / ITINERARIO EN COCHE



HISTORIA EZAGUTZEKO  
ZENTROA  
CENTRO DE INTERPRETACIÓN  
HISTÓRICA

## KOTXEZ IBILBIDEA ITINERARIO EN COCHE

### Ibilbidearen deskribapena

Ugao-Miraballesean hasiko dugu ibilbidea, Udiarragako Gure Amaren Ermitan. Hemendik BI-V-5144 errepidetik Zeberiorantz joko dugu. Ermitabarrira heltzerakoan bidetuz bat ikusiko dugu eta, bertan, ezkererantz desbideratuko gara. Oharrak jarraituz Zeberioanera helduko gara eta bertan Zeberioaneko Gure Amaren baseliza-santutegia ikusiko dugu. Ondoren Ermitabarrira itzuliko gara. autoa aparkatuko dugu eta, aldaia labor bat igoz, Olabarrietako Santo Tomas elizara iritsiko gara. Arterantz jarraituko dugu eta bertara heldu baino lehen eskuinean dagoen saihsbidea hartuko dugu Orozkorantz (BI-V-5214). Ibarra parean eskuinerantz Ollarte-Albizu jartzen duen saihsbidea ikusiko dugu, honi jarraituz Ollarteko San Bartolomé eliza dagoen auzora iritsiko gara. BI-V-5214 errepidetik Orozkorantz joango gara berriz eta Arangurengo auzora helduko gara. bertan Arangurengo dorrea ikus dezakegu. Orozko zeharkatu eta BI-522 errepidea hartuko dugu; aurrerago ezkererantz desbideratuko gara BI-V-5211 errepidetik Muruetako auzora heldu arte eta bertan San Pedroko Murueta eliza ikusiko dugu. BI-522 errepidera itzuliko gara eta A-68 autopistaren 3. irteera igaro ondoren eskuinerantz desbideratuko gara; Anunzibai auzora helduko gara horrela eta, bertan Anunzibai jatetxeko aparkalekuan aparka dezakegu autoa, eta izen bereko zubia ikusi. Ibilbidea bukatzeko Ugao-Mirabalesera bueltatuko gara N-625-a hartuz, Bilborantz.

### Descripción del Itinerario

Comenzamos el recorrido en Ugao-Miraballes visitando el Santuario de Nuestra Señora de Udiarraga. Desde aquí partiremos en dirección Zeberio por la carretera BI-V-5144. Al llegar a Ermitabari hay un pequeño cruce en el que nos desviaremos hacia la izquierda, siguiendo las indicaciones llegaremos a Zeberio, donde se encuentra la ermita-santuario de Nuestra Señora de Zeberio. Después volveremos a Ermitabari, aparcaremos el coche y subiendo una pequeña pendiente llegaremos a la iglesia de Santo Tomás de Olabarrieta. Seguiremos dirección Artea y antes de llegar a esta localidad tomaremos el desvío que hay a la derecha dirección Orozko (BI-V-5214) hasta que veamos a la altura de Ibarra un desvío a nuestra derecha que indica Olarte-Albizu que nos llevará hasta este barrio donde se encuentra la iglesia de San Bartolomé de Olarte. Volveremos a la BI-V-5214 dirección Orozko y llegaremos al Barrio de Aranguren, aquí podremos contemplar la torre de Aranguren. Seguiremos atravesando Orozko y tomaremos la BI-522; más adelante nos desviaremos a la izquierda por la BI-V-5211 hasta llegar al Barrio de Murueta, donde se encuentra la iglesia de San Pedro de Murueta. Volveremos a la BI-522 y pasada la salida 3 de la autopista A-68 (Areta-Llodio) nos desviaremos a la derecha llegando al barrio de Anunzibai, podremos aparcarse el coche en el parking del restaurante Anunzibai, donde visitaremos el puente con el mismo nombre. Para finalizar el recorrido volveremos a Ugao-Miraballes siguiendo dirección Bilbao la N-625.

